ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko apirilaren 10a, asteazkena • 44 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAIETARAKO IKASTEGIA

2019ko urtarriletik ekainera bitartean aldirako Gasteizko ikastetxeetan eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko diru-laguntzaren deialdiaren eta oinarrien laburpena. Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren lehendakariak deialdia eta oinarriak onartu zituen 2019ko martxoaren 1ean

BDNS(Identif.): 447247

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Gasteizko udalerrian kokatutako ikastetxeek edo ikasleen familien elkarteek edota udalerrian kokatuta ez izanez gero, gutxienez, ikasleen ehuneko 60 udalerrian erroldatua egotea.

Bigarrena. Helburua

Gasteizko ikastetxeei edo ikasleen familien elkarteei laguntza ekonomikoa ematea da diru-laguntza deialdi honen xedea; hain zuzen ere, bertan, 2019ko urtarriletik ekainera, eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko erraztasunak emate aldera.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Lehendakariak 2019ko martxoaren 1ean onartu ditu eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 12.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Ikastetxeek eskaerak aurkeztu beharko dituzte Udal Erregistroan edo Udal Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan 2019ko uztailaren 1a baino lehen.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 25ean

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren lehendakaria
IÑAKI PRUSILLA MUNOZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.04.10 05:32:18 Z